

ttipi-ttapa

284. zenbakia • 2000ko abuztuak 10 • XX. urtea



ttipi-ttapa ere
plísti plasta!

Argazkiak: GOIKO



Almaco Baztan

ETXEGINTZA ETA
SANEAMENDU
MATERIALAK

☎ 948 580 104 / 948 580 366
ELIZONDO

e Zeramikak



e Tximeneak



e Velux-ak



e Erremintak



ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mobleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

rmairu enpotratuen
erakusketa berria
Bittirian

ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780

LESAKA

**LOGELAK, EGONGELAK, TRESILLOAK,
KUTXAK, BESAUJKIAK...**



eskaintza
berezia



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
 Herriko Etxeko Plaza, 1
 E-31780 BERA (Nafarroa)
 Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
 Faxe: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Iri-
 goien. **Zuzendaria:** Aitor Arotze-
 na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza. **Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-
 na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba

Fernandez, Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu, Franck

Dolosor, Margari Etxenike, Koro

Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Frederick Berruet, Elixabet Iturri-
 a, Garbiñe Maiz, Oskar Txope-
 rena, Pello Apezetxea, Aitor

Arozena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-
 rroa, Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde**

Laguntzaileak: Bera, Leitzu,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Zugarramurdiko Akelarre elkar-
 tea, Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako

Zerbitzu Mankomunitatea, Zuga-
 rramurdiko Akelarre Elkartea...



Aldizkari honek Nafarroako
 Gobernuaren laguntza jaso du


Guk ere oporrak

Urtero bezala, abuztuarekin batera, iraila bitarte agurtzeko
 tenorea ailegatu zaigu.

Ale honetan, ohi dugunez, eskualdeko herrietako besta gehienetako
 egitarauak eskuratu dizkizuegu, hemen inguruan gelditzen
 zaretenentzat. Oporretan kanpora joan behar duzue, ongi
 pasatu eta ez galdu, irailaren 7an berriro ere
 hamabosteroko zita izanen baituzue
 ttipi-ttaparekin.

Ongi pasa eta laister arte!

ttipi-ttapa



ttipi-ttapa
 fundazioak
 Europako
 Batzordearen
 dirulaguntza
 jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
 • Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
 Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328 • 133346. Faxe: 948133713
 Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- \\ Langile Autonomoak
- \\ Nekazariak eta mendi-langileak
- \\ Nominak eta Aseguro Sozialak
- \\ Lan-kontratutarako laguntzak
- \\ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- \\ Diru-laguntza ezberdinak
- \\ Kontabilitateak
- \\ IVA eta IRPF
- \\ Errenta aitopenak
- \\ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- \\ Bideragarritasun planak

Astelehena, abuztuak 14
Arratsaldeko 7,45etan
 Bortzrietako Herri Ekimenak antolatua, agerraldi ixila «Euskal Presoak Euskal Herrira!» eskatuz.
8etan Herriko Etxetik airtuko den altxaferuak, besten hasiera adieraziko du. Parte hartuko duten guzientzat txanpaina izanen da eta haurrendako, berriz, goxokiak. Herriko txistulariak, trikitilariak, txaranga, buruhaundi eta kankailuak karrikaz karrika ibiliko dira besta egunetako lehen saioa eginez. **9,30etan** herri afaria (txartelak hartzeko azken eguna abuztuaren 9a izanen da). **12etatik 3,30etara** musika MUSUTRUK taldearekin. Karrikak txarangak animatuko ditu.

Asteartea 15:

Andremari Eguna

10,30etan argisoinuak txistulari, txaranga, buruhaundi eta kankailuekin. **11,30etan** Meza Nagusia. **12,30etan** herriko dantza taldeak bere saioa eskeiniko du herriko plazan. Ondoren, hameketakoa dantzari entzate. **6etan** bertsolariak. **7etan** herri kirolak Saralegitarren eskutik: proba kombina-



1980. urteko bestetan, pilota txapelketaren sariak banatzen.

ARGAZKIAK:
 Fidel CRUZek utziak

tua eta ebaketa australiarra. **8etatik 10ak arte eta 12etatik 3etara** dantzaldia EKINTZA taldearekin. Txaranga arituko da.

Asteazkena 16:

Haurraren Eguna

10,30etan plater tiraketa. **11etatik 1,30etara** eta **3,30etatik 6etara** hau-

rrendako joku-parkea. **2etan** Asau Tiki. **6etan** berendua gaztetxoendako. **Arratsaldez eta gauetz LAIOTZ** taldea. Txaranga arituko da.

Ortzeguna 17:

10,30etan argi soinuak. **11,30etan** haurren esku pilota txapelketa. **12,30etan** pilota parti-

dua. **5etan** mus txapelketa. **7etan** Gorritiren Showa. **8etatik 10ak arte eta 12etatik 3etara** dantzaldia LUHARTS taldearekin. Txaranga arituko da.

Ortzirala 18:

Asau eta Jubilatuen Eguna
10,30etan argi soinuak.

12etan pilota partiduak. Segidan, mus eta pilota txapelketen sari banaketa. **2etan** gazteek Asau ermitako zelaian eta jubilatuek bazkaria Larruburuan. **8etatik 10k arte eta 12etatik 3etara** dantzaldia IRATS taldearekin. Egunero bezala, txaranga arituko da.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaiak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardooa' Mazzoa
 Zahar antzekoa Txapeanua

ZINTARRIAK
 ADOKINAK
 ZOLAK

LANDABURUA

Janaridenda

Besta zoriontsuak opa dituzue denei

Tfnoa: 948 635047 • ETXALAR

ELUTSA

ESTUTUA

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

HERRIKO OSTATURIA

Jatetxea

☎ 948 635290 • ETXALAR

XATURETXEA

JATETXEA

Tfnoa: 948 63 70 27 LESAKA

Janaridenda


Bittiria 41☎ 948 637518•LESAKA

HARITZPE

948635235
 948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.



Goitian, ezkerreko argazkian, 1977. urteko bestetan dantzari ttikiak eta Juan Antonio Arburua txistularia. Eskuinean, 1968. urteko bestetan, bertsolariak kioskotik kantari. Ezkerrean, 1984. urteko bestetan, nexkak antzerki saioa ikusten.

☎ 948630052 • ZALAIN • BERA

ASADOR LA BASQUE
Besta on batzuk pasa itzazue
 Tfnoa: 948 635153 • ETXALAR

Deñe
 LENTZERIA
 MERTZERIA
 Tfnoa.: 948 627 514
 Beheko Plaza 8, LESAKA

Ileapaindegia
 Tel: 948 637429
 Bittiriako Plaza, 3 behea
 LESAKA

Jagoba I risarri Elizagoien
ITURGINTZA LANAK
 Ormigoizulaketa
 ☎ 948 635182 / 659 401555
 Lakatenekoborda • ETXALAR

ZURAK
 • ZURGINDEGI
 • ERAIKUNTZA
 • ENBALAJEA - PALET
 OIHAN ATERATZEAK
 ZERRATEGIA
 TABLERORAKO TXAPA

MADERAS

Bulegoa: Legarrea 14 • LESAKA • ☎ 948 637133
 Zerrategia: ETXALAR • ☎ 948 635253

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera
 ☎ 948630735

IRIBAL ZURGINDEGIA
 Zurgindegi orokorra (leiho, ate, zola...)
 LEIHOAK FABRIKATZEN DIRA
 Antsolokueta, 28 • 948 635071 • ETXALAR



Astelehena 14
Amabirjin Bezpera:
8etan altxaferoa botako da Herriko Etxetik, bestei hasiera emateko. Ondotik, herriko soinulariak karrikaz karrika ibiliko dira. **9etan** dantzari gazteen saioa. **12etan** dantzaldia plazan ETZAKIT taldearekin.
Asteartea 15
Amabirjinaren Eguna
10etan herriko soinulari eta txistulariak karrikaz

karrika ibiliko dira. **11etan** Meza Nagusia. Meza ondotik, herriko dantzariak frontoian. **7etan** Herri Kirolak. Euskal Herriko 3. mailako aizkora txapelketako kanporaketa honako aizkolari hauekin: Iñaki Aierbe (Gipuzkoa), Jose Ignazio Flores (Nafarroa), Patxi Salbidea (Araba), Jose Anjel Zubiaga (Araba), Jose Ignazio Saratxo (Araba), Jose M^a Esnaola (Gipuzkoa), Santia-

go Olabarria (Araba), Satur Salbidea (Araba), Javier Gebara (Araba), Peio Etxeberria (Gipuzkoa), Cesar Fernandez de Landa (Araba), Arkaitz Iriarte (Gipuzkoa) eta Mikel Erdozia (Nafarroa). Euskal Herriko txinga erute txapelketa ere jokatu da Roman Hierro (Araba), Juan Jose Agirregabiria (Gipuzkoa) eta Patxi Larretxea (Nafarroa) ariko dira. **9eta-**

tik 10etara eta 12etatik 3etara dantzaldia MUSUTRUK taldearekin.
Asteazkena 16
Haurren Eguna:
10etan herriko soinulari eta txistulariak karrikaz karrika ibiliko dira. **11,30etatik 1,30etara** eta **4etatik 7etara** gaztelu haitzuak, Tren txu-txua eta jolas parkea plazan. **7etan** haurren berendua. **8etan** Segurako dantza taldearen emanaldia. **9etatik**

10etara eta 12etatik 3etara MUSUTRUK taldearekin dantzaldia.
Ortzeguna 17:
10etan herriko txistulari eta soinulariak karrikaz karrika ibiliko dira. **11etan** Herriko pilota txapelketaren finala, Ekaitza elkar-teak antolatua. **2,30etan** herri bazkaria, txarangak alaitua. **7,30etatik 8,30etara** karrika animazioa Golopa Park hanka-



ALBERGEA
 JATETXEA
 ☎ 948 634179
 ARANTZA

ZUZAINEA
 OSTATUA
 Besta onak pasa!
 ☎ 948 634016 • ARANTZA



Lore eta landareak
 ☎ 948 63 78 26
 Frain auzoa • LESAKA

PRIMITIVO
 OSTATUA
 Besta onak
 pasa!
 Goiko Karrika - ARANTZA
 ☎ 948 63 40 52

BERABI Agentzia, S.L.

 **BERABI Tailerrak**

- SALMENTA
- MEKANIKA
- ELEKTRIZITATEA
- KONPONKETAK OROHAR

Alkaiaga industrialdea • ☎ 948 631445 **BERA**

winterthur

Zugandik gero eta hurbilago

Aseguroak
 ☎ 948 630601 • Faxa: 948 630805 • Legia 1, **BERA**




palo taldearekin. **9etan** Amaia Zubiria kantariaren emanaldia plazan. **12etatik aitzin** dantzaldia ALAITZ ETA MAIDER taldearekin.

Ortzirala 18:

10etan herriko soinu-lari eta txistulariak karrizak karrika ibiliko dira. **12etan** profesionalen arteko pilota partiduak: Etxaniz eta Iñurrategi; Otaegi eta Errandonea IIIren kontra. **6etan** Ala delta eta parapente erakusketak. **8etan** bertso saioa Jexux Mari Irazu, Angel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua eta Amets Arzallus bertsolariarekin. Gai-jartzaila: Patxi Larretxea. **9,30etatik 10,30etara** herriko musikari gazteen emanaldia. **12etan** ENE BADA.

Larunbata 19:

Gaueko 10,30etan Arantza Rock 2000. Taldeak: Borrokan, Dut, EH Sukarra, Betagarri eta Sociedad Alkoholika. Arantzako Gazte Asanbladak antolatua.



Aitzineko orrialdean, duela urte aunitz Arantzan egindako antzerki baten irudia. Ondoa, dantzariak duela lau urteko bestetan. Goitian dantzariak duela hogeit bat urte eta ondoan, pilota txapelketako irabazleei zapelak janzten.

bortzirUDI **BERA**

ENTZUKETAK ENKADENAZIOAK PLAS ERKAGUAK IANA I-MEDIA SEANNURIA

IMPRENTA IANAK SERIGRAFIA

ARANTZAKO MUNTAK

Estegara 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

OSIÑA JANARIDENDA

Besta ederrak pasa itzazue!!

Tfnoa: 948 63 41 88 • ARANTZA

948 631076 • BERA

ALZURI

ELEKTRAGAILUAK

Besta onak opa dizkizuegu

Bittiria, 41 • 948 627531; Mug.: 908-778894 • LESAKA

Pili Marce

Gizon eta emakumeendako ileapaindegia

- Ile-kentzea (hotzean eta beroan)
- Manikurak, pedikurak, makilaiak
- Perfume, kolonia eta kremen banatzailea
- UVA izpiak • Solarium

Kontsulta naturista

- Masaiak • Akupuntura
- Reflexoterapia eta pisu kontrolak, etab...

Tratamendu naturalak eta produktu dietetikoak

948 634 053 • ARANTZA

ARANTZA

ZURGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea Ordoki

Era guztietako zurgin lanak

Osiña Auzoa 948 634068

ARANTZA

Astelehena 14:

10etan besta hasierako suziria eta ezkil joaldia. Ondotik eskea herria guzian barna. **2etan** bazkaria, eskean ibili direnendako. **4etan** Jokolandia, haur parkea. **5etan** herriko pilota txapelketaren finala. **11etan** piperrada plazan, animatzen direnen guztiendako. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia EZTANDA taldearekin.

Asteartea 15:

Andre Mari Eguna
11,30etan Meza Nagusia. Ondoren, aperitifa eskeiniko du Herriko Etxeak. **12,30etan** Beskoitzeko Oinak-Arin dantza taldea arituko da. **6etan** pilota partidak: Unanue-Errasti, Arretxea-Errandonearen aurka. **7etan** berriz ere OLNAK-ARIN dantza taldea arituko da. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia BAJAJAUN taldearekin.

Asteazkena 16:

10etan futbol partidua: ezkonduak ezkongabeen aurka. **12etan** Gorriti eta bere animalien ikuskizuna: basurdeak, zakurrak, aretzeak, ahare



Herriko gazteak, 1991ko ahate jokoan parte hartzeko prest.

Argazkiak: Koro Irazokik utziak

eta oilar jokoak eta pottokak haurrentzat. **4etan** haurrentzat parkea: Jokolandia. **5etan** aizkolari eta harrijasotzaileak. **Arratsaldez-gauez** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

Ortzeguna 17:

10etan plater tiraketa. **12etan** zigante eta bu-

ruhaundiak gaiteroekin herriko karrketan. **5etan** ahate eta gako jokoak. **7etan** TAPIA, LETURIA eta PATXIrekin kantaldia. **11etan** Mozorro txapelketa. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Ortzilarea 18:

11etan Urruñako HER-

BURU eta Tolosako NEKAEZINAK txarangak, eta Baigorriko Gaiteroak karrketan ibiliko dira giroa berotzen. **2,30etan** Zikiro jatea lezeetan. **7etan** Larrain dantza eta Muxikoak plazan. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia ARKAITZ taldearekin.

Larunbata 19:

Arratsaldean kantaldia: Xan Mixel Bedaxagar, Maddi Oihenart, Niko Dominika Etxart eta Robert Larrandaburu. **Gauean** Rock kontzertua: ESKORBUTO, PIARRRES eta HASH taldeekin.

F.J. ETXABE Tailerrak

► Autoen konponketa
Besta on batzuk pasa!!!

☎ 948 599038 • ZUGARRAMURDI

ALTZATENEA JATETXEA

Besta ederrak pasa!!

Tfnoa: 948 59 91 87 - ZUGARRAMURDI



Altzate, 19•948630786 •BERA

**ANSALAS
OSTATUA**

**HARATEGIA
JANARIDENDA**

Besta ederrak pasa

☎ 948 59 90 82 • ZUGARRAMURDI

AKELARRE elkarteak
besta zoriontsuak
opa dizkizue zugarramurdiar
eta bisitari guziei

Agorrilaren 14tik 19ra



Goitian, ezkerrean, 1998ko abuztuaren 17ko gauetan mozorro dantzaldia. Eskuinean, 1993ko ahate jokoan, Elena ahatea tinkatzen. Beheitan, 1992ko ahate jokoaren prestakuntza.

Argazkiak: Koro Irazokik utziak



DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 € ☎ 948 63 02 40 € BERA



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

MARIXAN OSTATUA

BESTAK ONGI PASA!

☎ 948 599170 • ZUGARRAMURDI



Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzioko Bentak • ☎ 948 627572 • Faxes: 948 637508



Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekarietza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxes: 948 631169

AZKETA
frontoia

ostatua-jatetxea

Ongi pasatu
herriko bestak!

Frontoia
☎ 948599022 • 948 599230
ZUGARRAMURDI

Astelehena 14:

8etan suziriak eta ezkil-jotzea. **9etan** Baztan zopak, Joxe Anjelek alaituak (Txartelak Urdazubi, Elizondo, Erratzu eta Amaiurren salgai). **12,30etan** SSABOR TROPICAL talde brasildarra. **2,30etan** gaupasa GORRAMENDI 10 taldearekin.

Asteartea 15

Amabirjin Egune:

9etatik goiti Behi eta Ardi azienda sariketa. Zaldibehor eta artisauen erakusketa. **11,30etan** Meza Nagusia (Gaztelu taldearen emanaldia). **12,30etan** Mutildantzak. Hameketakoa kanpoan bizi diren herritarrentzat. **1etan** Behi eta ardi azienden sari banaketa. **5,30etan** Artzain-zakurren desfilea.

6etan XXV. Artzain-Zakur txapelketa. **Arratsalde** **gau**ez dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. **10etan** mutildantzak, muxikoak eta gaita. **11etan** xexenak laxoan.

Asteazkena 16

Haurren Egune:

11,30etan haurren pilota partidak. **4etan** haur jokoa. **5etan** MARSEL Magoa (Baztango Udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin). **6etan** haurren txokolata. **Arratsalde** eta **gau**ez Dantzaldia JOXE ANJEL eta KRISTIANekin. **10etan** mutildantzak, muxikoak eta gaita.



11etan xexenak laxoan.

Ortzileria 18

Zikiro Jate Egune:

11,30etan mus zimizte Gaztelu elkartearen (irabazleek bazkaria dohai-nik). **2etan** zikiro-jatea JOXE ANJEL eta KRISTIAN-en animazioarekin. **6,30etan** pilota partidak. **Arratsan eta gau**ean dantzaldia MINDEGIA Anai-arrebekin. **10etan** mutildantzak, muxikoak eta gaita. **10etan** autobusa herriz herri (ordute-gia ikusi). **11etan** xexenak laxoan.

Launbeta 19:

5etan VII Txirrindula bilgura. **7etan** asto karrera. **8etan** Xuberoko kantari eta dantzariak. **10etan** mutildantzak, muxikoak



eta gaita. **10etan** autobusa herriz herri. **11etan** xexenak laxoan. **12,30etatik 5ak arte** gaupasa GAUBELA taldearekin.

Bazkalondoko giroa eta kirola, urtetik urtera Amaiurko bestetan izaten diren bi osagarri. Amaiurko sokatira taldea, gainera, Nafarroa eta Euskal Herriko txapelkun izan zen hamarkada haseran. Argazkiak: Junkal Urrutiak utziak

ORDOKI likoreak

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

ERRETEGIA

Parrilan egindako
haragi eta
arrainak



Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, ♦ 948 580 013
ELIZONDO



MAITAN ETA VERONIQUE
84310 ERRE • TEL. 09 59 84 38 19

Astelehena 14:

12etan Iñaki Otxandorenak altxaferoa botako du. Ondotik herriko akordeolariak karriketan barna ibiliko dira. **2etan** haurren bazkaria. Ondotik jokoak. **9etan** Baztan zopak. **12etan** dantzaldia ONOFREren eskutik.

Asteartea 15:

Amabirgin Eguna

9etan argi soinuak. **11,30etan** Meza Nagusia. Ondotik, herriko dantzariak eta hameketakoa. **4,30etan** Ehiza Ibilaldia herrikoendako. **7,30etan** betizuak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia GAUBELA taldearekin. **10,30etan** su artifizialak.

Asteazkena 16:

Gazteen Eguna

9etan argi soinuak. **2etan** gazteen bazkaria zentralan. **7,30etan** betizuak. Ondoren Mozorro lehaketeta. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia ONOFREren eskutik. Tartean, patata-tortilla jatea plazan.

Ortzeguna 17:

Herrikoen Eguna

9etan argi soinuak. **11etan** mus txapelketa azkarra. **2etan** herri bazkaria, herri kirolak, etab... **7,30etan** betizuak..



Garai bateko bestak eta oraingoak. Dexente aldatu badira ere, helburu berarekin ospatzen dira: ongi pasatzea.

ARGAZKIAK:
Gurutze AIZPURUK utziak

Arratsaldez eta gauez dantzaldia ONOFREren eskutik eta tartean, gazta jatea.



SOULE

Hileta artea

☎ 948 453444 • 629 659583

ARIZKUN



**BAZTANDARRA
KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat**

Tel: 948 453310 - Faxe: 948 453375
Ordoki Auzoa • **ARIZKUN**



Gierreseta

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 948 592043 • **ORNOZ-MUGAIRI**



- APARKALEKUA
- TERRAZAK
- ARRANTZA
- LEKU EDERRA

**Abuztuaren 14an,
Besta Bezperako menu berezia:**

- BAZTAN-ZOPA
- TXURITABELTXA
- AHARI GISATUA

HOTEL MUGAIRE

LOGELAK EROSOTASUN GUZIEKIN
OSTATUA • JATETXEA (KARTA ETA MENU ZABALA)

☎ 948 592050, Bidasoa erreka bazterrean, Bertizko jaurerriaren ondoan • **OIEREGI-BERTIZARANA**

MIREN
ileapaindegi

Ordua eska ezazu

Miren Gortari Sein
☎ 948 592310
ORNOZ-MUGAIRI

Asteazkena 23:**Besta Bezpera**

12etan txupinazoa. 9etan ezkil-jotzea. 10etan baztan-zopak. 12etan dantzaldia MIKEL SALABERRI eta AINARArekin.

Osteguna 24:

San Bartolome Egune
10etan argi-soinuak.
12etan Meza Nagusia.
1etan herriko dantzariak.
7etan sokamuturra.
8,30etan dantzaldia.
10etan mutildantzak.
12etan dantzaldia.

Ostirala 25:**Herriaren Egune**

10etan argisoinuak.
12etan futbol partidua.
Herriko zaharrak gazteen kontra. 2etan herri bazkaria. 7etan sokamuturra. 8,30etan dantzaldia LAIOTZ taldearekin. 10etan mutildantzak. 12etan dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Larunbata 26:**Haurren Egune**

10etan argisoinuak.
12etan txirindula lasterketa. 1etan patata tortilla eta marrazki lehiaketa. 2etan haurren bazkaria. 3etan haurjokoak. 5etan haurrendako antzerkia. 7etan sokamuturra. Arratsalde eta gauetz



dantzaldia LAIOTZ taldearekin. 10etan mutildantzak. 6etan zingerjatea.

Igandea 27

10etan argisoinuak. 1etan Meza Nagusia. 4,30etan plater tiraketa Bagordin. 7etan sokamuturra. Arratsalde eta gauetz LAIOTZ. 10etan mutildantzak.

Lehen Tellarin egiten zen zikiro-jate batean. Ondoa, herriko dantzariak plazan zortzikoa dantzatzen.

Argazkia: Natitxuk utzia

**MENDAUR MOTOR**

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Astra Caravan TD, Astra 1.6
4 atekoa, Astra GSI, C-15 D,
Vitar TD, Corsa D, Kadett GSI
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

ARROPA DENDA

Gazteendako era guzietako arropa

Lanerako arropa

HUR-BERRI, S.L.

Iturgintza, kalefakzioa eta elektrizitatea

☎ 948 452449 - 608 776105 • Fax: 948 452 452

Oharriz - 31795 LEKAROZ

Txema Etxarte

Zolen akutxilatze eta bernizatze profesionala

☎ 948 637439
31700 LESAKA



Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

LARRALDEA SAGARDOTEGIA

Urtarrilan berriz zabalik Bestatan Larralde Sagardoa edan ezazu

☎ 948 452121 • LEKAROZ

Astelehena 14:

7,30etan altxaferoa bes-tei hasiera emanaz. Ondoren trikitilariak auzoz auzo ibiliko dira. **9etan** Baztan zopak Herriko Ostatuan. **12etan** dantzaldia MIKEL SALABERRI akordiolariarekin.

Asteartea 15:

Amabirgin Eguna

10etan kalejirak. **11,30etan** Meza Nagusia. Ondoren hameketakoa Herriko Ostatuan. **7etan** antzerkia. Ondoren dantzaldia MIKEL SALABERRI eta AINARArekin. **12etatik aitzina** dantzaldia MIKEL SALABERRI eta AINARArekin.

Asteazkena 16:

10etan kalejirak. **1etan** aizkora apostua: Mikel Mindegia eta Floren Nazabal, Donato Larretxea eta Antonio Senosiainen kontra. **5,30etan** pilota partiduak. Lehenbiziko herriko pilotari gazteak. Ondoren ASPEko pilotariak: Atxa eta Almandoz, Muruamendiaraz eta Iparragirrenen aurka. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia AGERRALDE ANAIK akordiolariarekin.

Ortzeguna 17:

Haurren Eguna

10etan kalejirak. **11,30etan** Plater Tiraketa. **Goizez eta arratsalde** karts, Gaztelu haizatuak, zezen menanikoa..., Lau Haizeta kultur koordinakundearen eskutik.



Joaquin Mitxeltorena txistulariari orain dela urte batzuk egindako omenaldia.

5,30etan mus txapelketa azkarra. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia JOXE ANGEL akordiolariarekin.

Ortzila 18:

10etan kalejirak. **2etan** herri bazkaria Maialen Lujanbio eta Imanol Agirre bertsolariarekin. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia JALISCO BAND taldearekin.



Txomin IRAZOKI
Fisioterapeuta

Eztegara, 24 • ☎ 948 631391 • BERA
Parrokia, 5 • ☎ 948 451854 • DONEZTEBE
Tel. mugikorra: 670 471200



Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466

PINTURAS LEGUIA S.L.

Eztegara 26, 2.C - BERA



Ioredenda

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

FUNERARIA ZERBITZUAK

Lesaka-Donoztebe



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

SAROB

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



ZALAIN
IATETXEA

Zalain Auzoa
☎ 63 11 06
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Astelehena 14

Bezpera

Gaeko 9etan Baztan-Zopak Herriko Ostatuan. **Gauerdiko 12etan** arbo-la altxatzea eta joaldunen ibilaldia. Ondotik dantzaldia IMUNTZO eta BELOKI taldearekin.

Asteartea 15

Amabirgin Eguna

8etan argi soinuak betikoekin. **11etan** Meza Nagusia. Meza ondoren, txistulariak eta Zubietako joaldunak. **12,30etan** bertso saioa: Sebastian Lizaso eta Jesus Mari Irazu.

Eguerdian aizkora apotua: Antonio Senosiain eta Antonio Jaunarena, Donato Larretxea eta Jose Antonio Loiarteren kontra. **7etan** dantzariak: Ortzadartalde. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia IMUNTZO eta BELOKI taldearekin.

Asteazkena 16

8etan argi soinuak. **11etan** pilota partiduak herritarren artean. **4,30etan** plater tiraketa bertakoentzat. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin.



Ortzeguna 17

Haurren Eguna

8etan argi soinuak. **12etan** herritarren arteko herri kirolak. **5etan** haur jokoak. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin.

Ostirala 18

Herriaren Eguna

8etan argi soinuak. **11etan** mus txapelketa herrikoentzat. **5etan** futbito partidua. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia MUGANIX taldearekin.



Orain urte batzuetako pilota txapelketaren irabazleak. Blanki Etxeberriak utziak

hurrendako zapatadenda
Julip onetakoak
 Ongi pasa fiestak!
 Merkatarien karrika, 21 • DONEZTEBE • ☎ 948 451954

ETXANDI TXOKO
jatetxea
 Bazkari, afari eta gosariak
 ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

ERRANDONEA
OSTATUA
Ongi pasa herriko festak
 ☎ 948 450216
ZUBIETA

TOLDOS BAZTAN
 Presta zaitez udarako!
 • Eguzkitik babesteko toldoak
 • Manualak, elektrikoak, urrunetik irekitzekoak
 • Kamioiendako gisa guzietako toldoak (irristatzaileak ere)
 • Errotulazioa
 SALMENTA
 ALOKAIRUA
 KONPONKETA
 ☎ 948 63 10 03 • 629 01 59 23
 Baldrun 8, Alkaiaga industrialdea • Lesaka • SARRERA BERA KO ZALAIN AUZOTIK

ERRANDONEA
OSTATUA
ZUBIETA
 ☎ 948 451 771

Asteartea 15:

Amabirgin Eguna

12etan Meza Nagusia Ama Birjinaren ohoretan. **1etan** aizkora apustua: Lopez eta Arria. **6,30etan** afizionatuen arteko pilota partiduak. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia ATSEGIN taldearekin.

Asteazkena 16

10etan jubencil mailako txirrundulari lasterketa. **6etan** Herri Kirolak. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia ATSEGIN taldearekin.

Osteguna 17

6etan afizionatuen arteko pilota partiduak. **8etatik 10etara** trikitilariak. **Gauzez** dantzaldia AMAIA ETA KRISTINA taldearekin.

Ostirala 18

Umeen Eguna

Goiz eta arratsaldez umeen parkea, karts, gaztelu haizatu, etab... **5etan** mustxapelketa. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Larunbata 19

Eguerdian herri bazkaria. Bazkari garaian eta atsaldian Erramun MARTIKORENAREN saioa. **6etan** aizkora apustua Mindegia eta Arrospideren artean.



Jalisko Band taldearen emanaldiarekin bukatuko dira aurteko pestak. **Larunbat bazkal ondoan Erramun Martikorena** -argazkiaren erdian, **Etxart aita-semeen artean** ariko da kantari.

Arratsaldez eta gauzez dantzaldia BASAJAUN taldearekin. **Igandea 20** **6etan** dantzariak. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia JALISKO taldearekin.





BELARRA
OSTATUA · JATETXEA
Amezitia karrika · DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06



J. RAMOS
Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut
☎ 948631342 BERA • ☎ 948637172 LESAKA

ttiipi-ttapa
internet
<http://www.jalei.com/topagunea/ttapi-ttapa>
E-mail: ttiipi-ttapa@topagunea.com

Hostal EZKURRA

JATETXEA
TABERNA



- Parrilla
- Terraza
- Banketeak

Kale Nagusia, 4 ¥ EZKURRA ¥ ☎ (948) 61 50 80



APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450133
948 451541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

Abuztuak 12, larunbata Umeen Eguna

Asteburuan **10etatik 1etara eta 4etatik 6etara** eskolako jangelan Idoia Beratarbideren marrazki erakusketa. Gaia: Umeak. **11etan** umeentzako jokoa. Toka eta xake txapelketa. **5,30etan** Collins Clown pailazoak Herriko Plazan. **6,30etan** txokolatada. **7,30etan** Gorritiren Showa plazan.

Abuztuak 13, igandea Umeen Eguna

9etan diana, herriko txistulari bandarekin. **11etan** meza, haurrak bertako jantziek in joanen direlarik. **12etan** pilota partidua. **5etan** plater tiraketa Basauntz elkarteak antolatua. **5,30etan** plazan «Ongi etorri Mendebaldera» antzerki emanaldia Collins Clown taldearekin.. **8etan** XAPÓ trikiti-xa taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 14, astelehena Amabirjin bezpera
12etan Udaletxeko balaitik jaiei hasiera eman-go dien itxaferoa botakoda. Ondoren, trikitilarien banda, erraldoi eta bu-



Umore Ona taldeko dantzari tikiak emanaldia hasteko esperoan, 1992ko festetan. Argazkia: Antton

ruhaundien konpartsak herriko kaleen barrena ibiliko dira. **6etan** Aralar Musika Eskolaren emanaldia. **8etan** Umore Ona peñaren irteera LARRAKAITZ txarangarekin. **12etan** gaupasa GOZATEGI taldearekin eta ondoren LARRAKAITZ txaranga.

Abuztuak 15, asteartea Amabirjinaren Eguna
7etan diana Tolosako dultzaineroekin. **8etan** entzierroa. **10,30etan** Meza Nagusia. Segidan Amabirjinarekin ohiko prozesioa. **12etan** txistularien banda eta erraldoi eta bu-ruhaundien konpartsa herriko kaleetan barna ibili-

ko dira. **12,30etan** 'bonba japonesak' umeentzako opariekin. **12,30etan** eskuz binakako bi pilota partidu, bat gazteen artekoa eta bestea: Agesta-Martinez Eulate, Baleztena-Errastiren kontra. **6etan** zezenak. **8etan** LOS CHARROS maria-txiaren emanaldia Herriko

Plazan. **10etan** presoen aldeko afari herrikoia Umore Ona elkartearen eta ondoren kalejira. **12etan** dantzaldia Sakanako Trikitilariak taldearekin. Ondoren LARRAKAITZ txaranga.

Abuztuak 16, asteazkena
12,30etan ARANTXA eta PANTXO Hegoamerikako

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ZABALETA TABERNA
Ongi pasa herriko festak
Nagusia 42 • ☎ 948 514063 • GOIZUETA

GOIZ ARGÍ Taberna
Festa zoriontsuak opa dizkizuegu
Tfnoa: 948 51 40 61 - GOIZUETA

EXKIÑA
jatetxea
• Pintxoak
• Bazkari eta afariak
• Bokatak
• Menua
☎ 948 514102 • GOIZUETA


EL ORDI
JATETXEA
Ongi pasa festetan!
Kale Nagusia,
Tfnoa: 948 51 40 39
GOIZUETA

GURE TXOKO TABERNA
Festa on batzuk pasa
Herriko Plaza, Tfnoa: 948 514097 - GOIZUETA

UMORE ONA
ELKARTEA
Festa ederrak pasa!!
GOIZUETA



Etxeberriko Rosario zena, Konejerako Antton, Sarrango Anttoniko, Ganddegiko Auxtin eta Olatxoko Doroteo. Ondoa, Kontxita, Xumar eta Fernando, Aimar Olaizoka buruhaundiarekin.



Musika (boleroak, ranxerak, tangoak...). **6etan** zezenak. **7,30etan** Aspe enpresako pilotari profesionalen arteko bi partidu handi. **12etan** dantzaldia TRAKETS taldearekin. Ondoren LARRAKAITZ txaranga.

Abuztuak 17, osteguna
7etan diana herriko trikitilariekin. **8etan** entzierroa. **12etan** txistularien banda eta erraldoi eta buruhaundien konpartsa herriko kaleetan barrena ibiliko dira. **12,30etan** eskuz binakako bi pilota partidu interesgarri, bat gazteen artekoa eta bestea: Apezetxea-Navarro, Saralegi-Bengoetxearen kontra. **6etan** zezenak.

8etan bertso saioa plaza: X. Lizaso, A. Egaña, J.M. Irazu, X. Legarreta. Gaijartzailea: Manolo Arozena. **12etan** dantzaldia TRIKITAKE taldearekin. Ondoren LARRAKAITZ txaranga. **Abuztuak 18, ostirala**

Ezkondu eta Umore Ona peñaren Eguna
12,30etan bi pilota partidu interesgarri. Lehendabizikoa lau terdiaren barranean: Larraia-Azpiroz. Ondoren, aspaldiko ohi-tura jarraituz, Goizueta Aranoren kontra. **3etan**

Umore Ona peñaren bazkaria. Ondoren, **5ak aldera**, LARRAKAITZ txarangarekin kalez kale ibiliko dira. Kalejira berezi hau bukatutakoan zezenak. Ondoren dantzaldia JOSELU ANAYAK taldearekin. **12etan** dantzaldia JOSELU ANAYAK taldearekin. Ondoren LARRAKAITZ txaranga.

Abuztuak 19, ostirala
11,30etan Gipuzkoako bi idi pare indartsuen arteko dema. **12,30etan** sargardo probaketa. **11etatik 1,30etara** eta **4etatik 6etara** Pista Libre, haurrentzako ikuskizunak: moto, kars... **6,30etan** Pentathlon eta enbor ebaketa alturan. **12etan** dantzaldia ETZAKIT taldea.

EROSLE
GOIZUETA
Kale Nagusia
Tel.: 948 514046

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena
zugandik hurbilago


UNTXALO
LIBURUDENDA • PAPERTEGIA
Festa on batzuk opa dizkizuegu
GOIZUETA

AMAI

Okindegia
Gozotegia

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!!

K. Nagusia - GOIZUETA - Tel: 948 51 42 42



Goizuetako Udalak
festa onak opa
dizkizue
Goizuetar eta
bisitari guziei



Astelehena 14:

12etan Udaletxetik suzi-
ria botako da pestei ha-
siera emanez. **10etan** XV.
Mus txapelketa herrikoa.
Ondoren dantzaldia.

Asteartea 15

Amabirjin Eguna:

11etan Meza Nagusia,
udal korporazioa bertan
izango delarik. Ordu be-
rean omenaldia eskaini-
ko zaio Juan Eraso
Olaetxea musikari areso-
arrari. Ondoren ohiko ha-
maiketako eskainiko da
Udaletxean. **1etan** pilota
partidua: Bengoetxea-
Apezetxea, Bengoetxea-
Astizen kontra. **7etan** aiz-
kora apostua: Jaunarena-
Barberena, Senosiain-
Lopezzen kontra. **8etan**
dantzaldia ZIRIKA talde-
arekin. **12,30etatik** goizal-
dera ZIRIKA taldea.

Asteazkena 16

Umeen Eguna:

11etan pilota partiduak
herriko gazteen artean.
12etan mus txapelketa-
ren finala. **12etatik 2eta-
ra** eta **4etatik 7etara** hau-
rren jokoak plazan (52
gatzelu puzgarri eta ze-
zen mekanikoa jarriko di-
ra). Plater hausketa he-
rrikoa. **7etan** motozerra
emanaldia. **Arratsaldez**



eta gauez dantzaldia ZI-
RIKA taldearekin.

Osteguna 17:

Jubilatuaren Eguna


11etan Meza. Ondoren
bertsolariak. 2etan zikiro-
jatea. Ondoren bertsola-
riak. **7etan** aizkora apos-
tua: Olasagasti eta
Peñagarikano, Arrospide
eta Larretxearen aurka.
Arratsaldez eta gauez
dantzaldia ZIRIKA talde-
arekin.

Egunero, arratsaldez eta
goizaldean, Sokamuturra.

Igandea 20:

5etan III. Nafarroako
Artzai txakur txapelketa,
Larrea eta Artxate elkar-
teek antolatua. Ondoren
sokatira.

**Joan den urteko
artzain txakur
txapelketako eta
Umeen Eguneko
argazkiak.**



gatzelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
☎ 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

INTERVIDE
Bideo Profesional erreportaiak • Ezkontz erreportaiak
Tel: 948.599.055

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

LESAKA

**NAFARROAKO
ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA**
Ardi-ile moztailen erakustaldia
Areson abuztuaren 20an, arratsaldeko 5etan
Artxate elkarteak antolatua
Laguntzaile: Larrea elkarte

S. C. R.
LARREA

BEXUEN
25 metro goratzen den garabia
Kabrestantea urutiko agintearekin
Tel: 670 974025 • 667 418661

Ortzirala 25:

Haurren Eguna

5etan haur jokoak izanen dira. **8etan** Herriko Etxetik suziriarekin beste hasera emanen zaie. Ondoren herriko musikariek karrikak alaituko dituzte. **8,30etan** zopa jatea Herriko Ostatuan. **12etatik aitzin** JALISKO BAND taldearekin dantzaldia.

Larunbata 26:

10etan kalejira. **4etan** plater tiraketa herrikoentzat. **6etan** futbito partidua jokatuko da. **Arratsaldean** musika soinua GAUBELA taldearekin. **12,30etatik aitzin** gaupasa GAUBELA taldearekin.

Igandea 27:

10etan kalejira. **11,30etan** mus txapelketa herriko plazan. **4etan** plater tiraketa libre. **6etan** aizkora erakusketak Legasako pilotalekuan. **Arratsaldean eta gabaz** musika soinua GAUBELA taldearekin.

Astelehena 28:

San Agustin Eguna

7etan Aurora eta kantaldi saioak. **10etan** kalejira. **11,30etan** Meza Nagusia eta ondoren hameketako herrikoia Ku-Ku elkarreak emana. **5etan** herriko pilota txapelketaren



finalak. **Arratsaldean eta gabaz** JALISKO BAND taldearekin.

Asteartea 29

Herrikoen Eguna:

10etan kalejira. **12etan** mus txapelketaren finalak. **2etan** zikiro jatea. **Arratsaldean eta gabaz** dantzaldia DUO ANTXETA taldearekin.

Ortzirala, irailak 8

Santa Leokadiaren Eguna ospatuko da Legasako ermitan.

San Agustin bestetako Umeen Egunean mozorrotzeko ohitura zegoen garai batean. Goiko argazkia 1980. urtekoa da eta beheitikoa 1978koa.

Argazkiak: Monica Migeltorenak utziak



KATTU

ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak

☎ 948627573 • LESAKA



Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

ARROPA DENDA



Gazteendako era guzietako arropa

Lanerako arropa

PATXIKU garraio - eskabazioak

Tel: ☎ 970 971025



ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763

Ortzirala 18:

12etan suziriarekin eta ezkil jotzearekin hasiko dira bestak. **1,30etan** Gazte Bazkaria Herriko Ostatuan. **3etan** herriko gazteak etxe kalejira egiten dute ANGUS akordeolariarekin. **9,30etan** Bertizaranako zopak eta txuritabeltxa herriko jatetxeetan. **1etan** gaupasa TRIKIMAILU taldearekin.

Larunbata 19:

9etan mendian gosaria. **10etan** egundoko desafioa. Alde batetik «Espera eta Desespera» desbrozadorearekin eta beste aldetik «Kadena-4, Destroyer eta Palomo» motozerrekin. **11etan** haurrendako jokoak opari ederrekin. **4etan** mus eta futbolin txapelketa. **8etan** kontzertua herriko akordeolarien eskutik eta buru haundiak. **12,30etatik 5etara** gaupasa IRATXO taldearekin. **5,30etan** zingar-jatea.

Igandea 20:

10,30tan Plater Tiraketa. **12etan** Meza Nagusia. **12,30etan** dantzariak. **1etan** ipuin kontalaria. **6,30etan** herri kirolak. **8etatik 10etara eta 12,30etatik aitzin** dantzaldia SUAN BLAI taldearekin.

Astelehena 21:

10etan piraguen jautsiera Bidasoa ibaian, BKZren eskutik. **12etan** pintxo txapelketa (kriston sariekin). **2etan** zikiro jatea (txartelak salgai Esther janaridendan eta Herriko Ostatuan) SALABERRI akordeolariarekin eta Bittor Elizagoien eta bertze bertsolari batek alaitua.



1998ko argazkian, Narbarteko gaztedia. Ondoan, 1970. urteko argazkian, M^a Jesus Arrastio, Zigako Kerejeta akordiolaria, Javier Perez, Manolo Ibarra, Jose Miguel Iriarte, Pello Arretxea eta Enrique Oteiza.

ARGAZKIAK: Maite BERTIZek utziak

Arratsaldez eta gauz dantzaldiak SALABERRIrekin.


Asteartea 22:

11etan Bidasoa ibaiaren bigarren jautsiera kamaretan. **4etan** txirindularien lasterketa. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia SALABERRIrekin.

Asteazkena 23:

San Felipe Benicio Eguna

12etan Meza Nagusia. Gero, herriko akordiolari taldeak eskainitako kontzertua eta hameketakoa. **2etan** auzo bazkaria herrian. **4etatik 8etara** haur jokoak (karts, gaztelu puzgarriak...). **5etan** txikito txapelketa eta gero lasterketa. **11etan** su artifizialak. **12etan** mariatxien dantzaldia. **4etan** besta amaiera.



H. Lopez

iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrialia
- Ureztatze sistemak
- Ordaintzeko erreztasunak
- Finantziarioak

Tel.: 948 452126 • 617 349944

NARBARTE



SELEZONES UDENA, S. L.




Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

NARBARTEKO
HERRIKO
OSTATUA

MENUAK eta KARTA

*Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu*

San Andres 1
Tfnoa: 948 592159
NARBARTE

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

BERA. Pisua hartuko nuke errentan. ☎ 948 634 125 edo 948 467 803.

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Pertsona bat behar dugu Iruñeako Sancho El Fuerte karrikan pisua osatzeko. ☎ 636 508 326.

GARAJEAK/LOKALAK

107 ERRENTAN EMAN

SARA. 800 m²ko gordelekua errentan emateko. Nahi diren m²ak alokatzen ahal dira, 400 pta/16 lib. m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

155 m²ko **pabiloia** errentan emateko. ☎ 948 630 421.

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

Itzulpenak egiten dira. Gaztelera-euskara, euskara-gaztelera, frantsesa-euskara, frantsesa-ingelesa... ☎ 948 631 507.

EGA ateri nahi baduzu dei nazazu. ☎ 948 631 507 (Elena).

LANA

302 ESKAINTZAK

Urdazubin **zerbitzari** bat behar da uztailetik iraileko lehen asterarte lan egiteko. ☎ 619 829 289.

Iturenen **zerbitzari** bat behar da jatetxe eta barrarako. Ordutegi ona eta kontratua. ☎ 619 829 289.

Elizondoko bijatetxetan barrako **zerbitzariak** behar dira udan lan egiteko. ☎ 619 829 289.

Pertsona euskalduna behar da Hondarribian haur bat urte osoan zaintzeko. ☎ 943 644 186.

Lan egin etxetik. Ordu gutxi lan egin eta ongi irabazi. Nazioarteko enpresa. ☎ 943 635 173 edo 629 373 664 (Mikel).

Neska euskalduna behar da Donostian interna moduan umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. 120.000 ptako soldata eta gizarte segurantzaz. ☎ 943 290 006 (Pepita).

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Oraindik 2 urte ez dituen **Seat Ibiza GTDi** salgai. ☎ 948 450 526 (gauzez) edo 667 424 637.

Lambretta motoa salgai. NA-N. ☎ 948 634 078.

Honda NSR motoa salgai. 125ekoa, egoera onean. ☎

948 637 178.

ANIMALIAK

601 OPARITZEKO

Katukumeak oparitzeko. ☎ 948 637865.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Setter ingles zakurkumeak salgai. ☎ 948 637865. 608 592775.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Kanpin karroa salgai. Alpen-Kremer prestige markakoa salgai. Sukaldearekin eta freno inertiarekin. Egoera onean. 110.000 pta. ☎ 608 774 685.

Urte bateko **akordeoia** salgai. Botoiduna, txuria eta oso ongi zaindua. ☎ 948

581 068.

CD-165 erreproduktorea salgai. 10.000 pta. ☎ 948 599 105.

Bigarren eskuko **trikitixa** erosiko nuke. ☎ 948 220 481.

Josteko makina (modelo zaharra) salgai. ☎ 948 634 078.

Sony bideokamara salgai, berri-berria, bere maleta eta guzi. ☎ 948 630 766.

DENETARIK

703 GALDU-AURKITUAK

Lesakan, Lopeneko borda eta Sastrin arteko bidean **bi giltzari harrapatu** ditugu. ☎ 948 637 913.

Erlojua aurkitu dugu San Juan Xarren. ☎ 948 630 332 (arratsetan).

Mendi bizikleta grisa ageritu da Beran. ☎ 948 631 343.

FAGOR

Fagor elektrogailuak, 5 urteko garantia

AMAIUR

Prezioa zuk jarri, sukaldea guk jarriko dizugu



SAME



AROZ BERRI

.....
GURE ZERBITZUAK ZURE ESKURA



SALMENTA
profesionalak



ERREKANBIO
originalak



ZERBITZU
garantizatua



ASISTENTZIA
azkarra

Besta zoriontsuak opa dizkizue

**MUEBLES
METS**

Sarrera BERATik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443



Kajoidun kanapea eta
135eko koltxoia:
96.300 pta
Koltxoi azala opari



Kanape tolesgarria
eta 135eko koltxoia:
80.100 pta
Koltxoi azala opari



4.000m²ko
erakusketa
mobleak ikusteko
Larunbat arratsaldetan irekia

SASOI



ESKABAZIO
ETA GARRAIOAK



- LUR MUGITZEAK • LUR ZANPATZEAK •
- LUR BERDINKETAK • URBANIZAZIOAK •
- KANALIZAZIOAK • GARRAIOAK •



Leku-Eder, 4 - 1.D • Tel.: 948 45 15 96 • Mugikorra: 667 42 46 35
31791 SUNBILLA (Nafarroa)